

## Zertan laguntzen du **puntua bi lerrotan idazteak**?

Puntua esaldi bat da eta **bi lerrotan** idatzi ohi da. Hala idazteak, **abesterakoan**, asko laguntzen digu: kantuan ari garela, doinuan **hitzak bere lekuan** sartzen ari garen ala ez jakiteko. Egin dezagun proba!

**Puntu hau bi modutan idatzita dago: lerro bakarrean eta bi lerrotan. Abestu dezagun. Zein zaizu errazena?**

- 1 Pozik bizi naiz eta hilko ez banintz **hobe**
- 2 Pozik bizi naiz eta hilko ez banintz **hobe**



## Nola jakin **bi lerroak non eten**?

**Doinuak esango digu.** Abesten ari garela, puntuaren erdian, doinuak isilune labur bat izaten du, **geldialditxo** bat, arnasa hartzeko ere: **etena** esaten zaio eta hortxe amaitzen da lehen lerroa! Bigarren lerroa **oinarekin** amaitzen da.

## Erritmo kontua

Bertsoari erritmoa bi ezaugarrik ematen diote: **Errimak** eta doinuan dauden **etenek** edo isilune laburrek.